

**GRADU IKASKETA OFIZIALETAN SARTZEKO PROBA ANTOLATZEN DUEN
BATZORDEA.**

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA 2009-2010

Azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren 16.4 artikulua xedatzen du, ikasturte hasieran, unibertsitateko gradu ikasketa ofizialetan sartzeko proba antolatzen duen batzordeak jendaurrean jakinaraziko dituela antolaketa-irizpideak, ariketen oinarriko egitura eta kalifikazio irizpide orokorrak.

Hori dela eta, Batxiler titulua edo baliokidea dutenentzat, 2009-2010 ikasturterako ondorengo eranskinetan adierazitako dokumentuak onestea erabaki du aipatu batzordeak.

Nolanahi ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Batzorde Antolatzaileak beren eginkizunak betez zehazten dituzten ohar eta jarraibideak eman ahalko dituzte.

Arau hauek aplikatu behar dira:

1892/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, unibertsitateko gradu ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko prozedurak arautzen dituena (azaroaren 24ko B.O.E.)

Unibertsitateko gradu ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko prozedurak arautzen dituen azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren akats-zuzenketa (martxoaren 28ko B.O.E.)

EDU/1434/2009 Agindua, maiatzaren 29koa, Unibertsitateko gradu ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko prozedurak arautzen dituen azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren eranskinak eguneratzen dituena (ekainaren 4ko B.O.E.)

49/2008 Foru Dekretua, maiatzaren 12koa, Nafarroako Foru Erkidegoko batxilergo ikasketen egitura eta curriculumak ezartzen dituena (ekainaren 6ko N.A.O.)

Hezkuntza kontseilariaren 164/2009 Foru Agindua, urriaren 9koa, Nafarroako Foru Erkidegoan gradu unibertsitate ikasketa ofizialetan sartzeko probaren zenbait alderdi garatzen dituena (urriaren 28ko N.A.O.)

María Jesús Barber Cárcamo andreak, proba antolatzen duen batzordearen idazkaria den aldetik, ziurtatzen du batzorde honek 2009ko abenduaren 21eko bileran onetsi zituela eransten diren agiriak.

Horrela ager dadin, dagozkion ondorioetarako,

O.E.
Batzorde Antolatzaileko
burua

Idazkaria

I. ERANSKINA: UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK **ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK**

1) Probaren deialdia.

Batzordeak otsailean egingo du probetarako deialdia. Probaren deialdian agertuko da ariketak zein egunetan egingo diren, bai eta proben egutegia xehetasun guztiekin ere, hala ohiko deialdirako nola aparteko deialdirako.

2) Izen-ematea.

Proba antolatzeari begira, izena emateko epea irekiko da, dagokion deialdian adierazitako egunetan. Batxilergoko bigarren ikasmaila egin duten ikastegiaren bidez emango dute izena ikasleek. 164/ 2009 Foru Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ikasleak honako hauek adieraziko ditu bere izen-emate eskaeran:

- a) Probak zein hizkuntzatan egingo dituzten (gaztelaniaz edo euskaraz)
- b) Zein irakasgai komunitateko azterketa egingo duen fase orokorreko bigarren ariketan, Filosofiaren Historiakoa ala Espainiako Historiakoa.
- c) Zein atzerriko hizkuntzatan egingo duen azterketa. Alemana, frantsesa, ingelesa, italiara eta portugesearen artean aukeratu ahalko du.
- d) Bigarren ikasmailako zein modalitate-irakasgaitako azterketa egingo duen fase orokorrean.
- e) Gehienez ere bigarren ikasmailako zein hiru modalitate-irakasgaitako azterketa egingo duen fase espezifikotan. Irakasgai horien artean ez da egongo fase orokorrean aukeratu duen irakasgaia.
- f) Zein hizkuntza-eredutan egin duten batxilergoko bigarren ikasmaila. 164/2009 Foru Aginduaren 3. artikuluan 3. puntuak ezartzen duenaren arabera, "D" eta "A" hizkuntza-ereduetako ikasleek euskal hizkuntza eta literaturari buruzko bosgarren ariketa bat egin beharko dute fase orokorrean.

Aurreko informazioarekin, zeina euskarri informatikoan igorriko baita Nafarroako Unibertsitate Publikora, eta Ikastegiko zuzendariak sinatutako alfabetoaren arabera zerrendarekin batera, ikasleak sinatutako eskaera bat aurkeztuko da. Aipatu eskaeran adierazi beharko da zein hizkuntzatan egingo dituen probak (gaztelaniaz edo euskaraz), zein irakasgaitan egin duen izen-ematea fase orokorrean, zein irakasgaitan fase espezifikotan eta zein atzerriko hizkuntzatan.

3) Ariketak prestatu eta aukeratzea.

Irakasgai bakoitzeko aholkulariak bere irakasgaiko hiru azterketa protokolo desberdin emango dizkio batzordeari, zeinak batzordearen jarraibideen eta hark onetsitako oinarritzko egituraren arabera egingo baititu. Nolanahi ere, protokolo bakoitzak egitura bereko bi aukera desberdin izango ditu.

Batzordeak ohiko deialdirako eta aparteko deialdirako zein protokolo erabiliko den erabakiko du, ariketak prestatu eta aukeratzeko prozedura isilpean gorde dela bermatuz. Hirugarrena antolaketa arrazoiak daudenean edo egoera berezietan erabiliko da.

Modalitate-irakasgaiei dagokienez, deialdi baterako azterketa-protokoloa aukeratu eta gero, fase espezifikoko probetan bi aukeretatik zein erabiliko den erabakiko du batzordeak.

4) Unibertsitatean sartzeko proba antolatzen duen batzordea, Unibertsitateko irakasgai-aholkulariak eta Hezkuntza Departamentuko irakasgai-koordinatzaileak.

Hauek eratu eta jardungo dute Hezkuntza kontseilariaren urtarrilaren 9ko 164/2009 Foru Aginduak, Nafarroako Foru Erkidegoan graduko unibertsitate ikasketa ofizialetan sartzeko probaren zenbait alderdi garatzen dituenak, ezarritakoaren arabera.

5) Epaimahai kalifikatzaileak.

Probak antolatzeko, batzordeak epaimahai kalifikatzaileak izendatuko ditu 164/2009 Foru Aginduaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

6) Kalifikazioak.

Epaimahai kalifikatzaile bakoitzak, azterketa zuzendu eta gero, "akta labur" bana emango dio ikastegi bakoitzari, zeinean jasoko baitira ikastegi horretako ikasleek azterketak egin dituzten irakasgaietako kalifikazioak.

"Akta laburrekin" batera, ikasle bakoitzeko "txartel" bat emango da, zeinean, deialdiaren egunaz gainera, honako hau jasoko baita:

- a) Hala balitz, fase orokorreko lau edo bost ariketetako kalifikazioak, ariketa horien batez bestekoa, irakaskuntza-espeditentaren nota, fase orokorreko zenbakizko kalifikazioa eta "gai" edo "ez gai" kalifikazioa, dagokionaren arabera. Ikaslea fase orokorreko ariketaren batera aurkeztu ez bazen, dagokion kalifikazioan "EA" agertuko da, baina, irakasgai horien kalifikazioen batez bestekoa kalkulatzeari begira, 0 bezala zenbatuko dira.
- b) Fase espezifikoko ariketetako kalifikazioak, baina ikasleak gainditutako ariketen kalifikazioak soilik.

7) Ezgaitasunen bat duten ikasleak.

Ezgaitasunen bat dela-eta bai fase orokorra eta bai fase espezifikoaren berdintasun baldintza egokietan egin dezaten bermatzeko neurri bereziak behar dituzten ikasleek batzorde antolatzaileari emango diote horren berri, eta gero batzorde horrek erabakiko du zein diren hartu beharreko neurriak. Halaber, behar den epaimahaiko buruak hezkuntza-administrazioa eta ikaslearen ikastegiko organo tekniko eskumendunen txostenak eta lankidetzak eskatu ahaliko ditu.

8) Erreklamazioak

1892/2008 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituko zaio.

9) Informazio mekanismoak.

Unibertsitatean sartzeko proben deialdia argitaratzen den edo ez alde batera utzita, batzorde antolatzaileak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta/edo Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren web-orrialdeaz baliatuko da interesekoak iruditzen zaizkion gaien berri emateko.

Horretaz gainera, informazio koaderno bat egingo da bigarren hezkuntzako ikastetxeentzat eta ikasleentzat beraientzat, eta gutxienez informazio bilera bat egingo da urtero batxilergoa ematen duen bigarren hezkuntzako ikastetxe bakoitzeko ordezkariekin.

Ikasleek aurreko ikasturteetako probak eskura ditzakete Nafarroako Unibertsitate Publikoaren web-orrialdean.

II. ERANSKINA: KALIFIKAZIO IRIZPIDE OROKORRAK

Irizpide hauek aplikatuko dira irakasgai guztietan, probaren iraupena eta Batxilergoko bigarren ikasmilako curriculumerako zehaztutakoa kontuan hartuta.

- 1) Erdietsitako puntuazioa ez da 10 puntu baino handiagoa izango.
- 2) Ikasleen adierazpen gaitasuna eta hizkuntza zuzentasuna berariaz neurtu ahalko da.
- 3) Fase orokorreko irakasgaien kalifikazioa.

1. Ariketa bakoitza 0tik 10era kalifikatuko da bi hamarrenekin.
2. Fase orokorraren kalifikazioa emateko bertan izan diren ariketa guztietako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa egingo da 0tik 10era, eta milaren hurbilenarekin biribilduko da; distantziakidea bada, ordea, goikoarekin.

- 4) Fase orokorreko irakasgaien kalifikazioa.

Fase honetan ikasleak azterketa egingo duen irakasgai bakoitza 0tik 10era kalifikatuko da bi hamarrenekin. Irakasgaia gainditutzat hartuko da 5 puntuko kalifikazioa edo handiagoa lortzen bada.

- 5) 1892/2008 Errege Dekretuaren 16.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Batzorde Antolatzaileak erabaki du azterketa protokoloek nahitaez jaso behar dutela aztergai bakoitzaren ponderazioa ariketaren kalifikazioan, bai eta zuzentasun eta kalifikazio irizpide espezifikoak ere, kalifikazio guztien objektibotasuna eta berdintasuna bermatzeko.

Aztergai bakoitzaren ponderazioa, goiko paragrafoan aipatzen dena, ariketa berean zehaztuko da.

III. ERANSKINA: ARIKETEN OINARRIZKO EGITURA

Ondorengo jarraibide hauek, zeinak azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren II. Kapituluaren eta urriaren 9ko 164/2009 Foru Aginduan oinarritzen baitira, ariketen oinarrizko egituraren ezaugarriak arautzen dituzte.

1) Orokorrak.

1. Zein hizkuntzatan egingo diren

Ariketak idatziz egingo dira foru erkidegoko hizkuntza ofizialetan eta, atzerriko hizkuntzaren proban, berriz, behar den hizkuntzan.

2. Iraupena

Ariketan agertu beharko da proba egiteko denbora: ordu bat eta hogeita hamar minutu.

3. Anonimatoa

Ariketen proposamenek ikasleen anonimatoa bermatu beharko dute.

4. Objektibotasuna eta berdintasuna

a) Gaztelania eta literatura eta atzerriko hizkuntzako irakasgaien ariketetako egiturak hurrenez hurren azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren 9.1 eta 9.3 artikuluetan ezarritakoa beteko du.

b) Euskal hizkuntza eta literaturako irakasgaien ariketetako egiturak (D eta A ereduak) urriaren 9ko 164/2009 Foru Aginduaren 3.4 artikuluan ezarritakoa beteko du.

c) Gainerako irakasgaietako ariketen egiturak bermatu behar ditu ebaluazio-irizpideak era objektiboan ezartzea ahalbidetuko duten erantzun formatuak.

d) Ariketen protokoloetan ezarrita etorriko dira zuzenketa eta kalifikazio irizpideak, zeinak proba egin eta gero emango baitira argitara.

5. Aztergaien egitura

a) Aztergai bakoitza ebaluatu behar den ezagutza eta gaitasun motari egokituko zaio, eta enuntziatuan jasoko du egiteko proposamena.

b) Aztergai bakoitzak puntu-ponderazioa izango du ariketa kalifikatzeko.

6. Materiala erabiltzea

Ariketa bakoitza egiteko edozein material orokorraren (bolalumak, arkatzak, eta abar...) edo espezifikoren (marrazkiak egiteko papera, konpasa, erregela, kalkulagailuak, hiztegiak, etab.) erabilerari buruzko informazioa eman beharko zaie ikasleei aurretiaz.

7. Informazio osagarria: oharra, jarraibideak...

Behar izanez gero, idatziz informazio osagarriak eman ahalko dira ariketan.

Nolanahi ere, egitura, ariketetako proposamenak eta erantzunen formatuak arau indardunei egokituko zaizkie.

2) Fase orokorreko eta espezifikoko ariketak.

Fase orokorra nahitaezkoa da ikasleentzat eta espezifikoa borondatezkoa.

1. Fase orokorreko ariketak:

Egitura bereko bi aukera egongo dira, eta ikasleak bat aukeratu behar du.

Fase orokorrean, ikasleak aukeratutako aukera argi eta garbi adierazi, eta soilik haren aztergaiak erantzungo ditu nahitaez, beste aukerako aztergaiak erantzun edo nahasi gabe.

Lehen aukeraren goiburukoan hitzez hitz adieraziko da "Fase orokorra, A aukera" eta bigarren aukeraren goiburukoan, berriz, "Fase orokorra, B aukera".

2. Fase orokorreko ariketak:

Fase honetako ariketek nahitaezko proposamen bakarra izango dute ikasleentzat.

Ariketaren goiburukoa hitzez hitz adieraziko da: "Fase espezifikoa".

3) Modalitate-irakasgaiak.

Ikasleak modalitate-irakasgaietako lau ariketa egin ahalko ditu gehienez: bat fase orokorrerako eta gainontzekoak fase espezifikorako.

Modalitate-irakasgai bereko ariketek egitura bera izango dute bi faseetan.

Ikasleak 1, 2 edo 3 irakasgai-modalitatetako azterketa egin ahalko du fase espezifikoan.

4) Probaren alderdiak aldatzea.

Dagokion aholkulariak batzorde antolatzaileari igorri beharko dizkio irakasgai bakoitzeko sarrera probaren edozein alderdi aldatzeko erabakiak. Batzordeak, haiek aztertu eta onetsi ondoren, ikastegietako zuzendariei igorriko dizkie.